

EKONOMIAREN TALAIAN

Familia-enpresak... eta kapitalistak ere bai



JUAN MARI ARREGI

Euskadiko Familia Enpresen Elkar-tea 66 konpainiak osatzen dute eta 13.900 milioi eurotik gorako fakturazioa du. 148.000 laguni baino gehiagori ematen die lana, eta ekosistema bat sortzearen alde egin du, sektore publikoa barne, haren hazkundera bultzatzeko. Familia-enpresa EAEko ekonomiaren ekoizpen-sarearen %84 da.

Bere presidente Andres Sendagortak –Sener enpresa-talde garrantzitsuko presidente ere badenak–, esan du euskal familia-enpresak funtsezkoak izan direla garapen ekonomikoan duela ehunka urtetik. Bere ustez, familia-enpresak aktiboki lagundu du jarduera ekonomikoa bultzatzen eta ongizatea eta enplegua berreskuratzen. Bilboko Iberdrola Doreean egindako elkartearen urteroko batzarrean, Sendagortak azpimarratu du ekimen pribatua “funtsezkoa” izaten ari dela eta izango dela ekonomiaren susperraldian, “agertoki sendo eta etorkizun iraunkor baten oinarriak” ezartzeko. Eta sektore publiko eta pribatuen lankidetzaren alde egin du.

Egia da Euskal Herrian familia-enpresen tradizio handia egon dela. Egia da horietako asko gaizki pasatzen ari direla. Hala ere, ez da ahaztu behar hazi ziren sistema ekonomikoa kapitalista izan zela eta izaten jarraitzen duela. Horrela, euskal enpresaburuen familia asko aberastasun handia pilatu dute, eta beti aurkitu dute lekua enpresa handietako administrazio-kontseiluetan, batez ere bankuetan eta elektrizitate konpainietan.

Egoera ekonomikoak krisi larria sortu duen honetan, familia-enpresa horien arduradunek ere erakunde publikoei dei egiten diete. Beren galerak diru publikoarekin gizarteratzen saiatzen ari dira, irabaziak eta aberastasuna privatizatzen dituzten bitartean. Familia-enpresak, bai, baina baita kapitalistak ere. ●

ANALISIA



Macronen hitzak eta nekropolitika

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Hitz bakoitza arreta handiz neurtuz eta hautatuz, horrela dabil Emmanuel Macron Frantziako presidentea eta funtsean, agintari oro COVID-19 garai honetan. Begibistakoa da osasun neurri berriak zabaltzeaz gain, maingu den bake soziala bermatzeko hitzak ere hautatzen dituela Macronek. Azaroaren 24ko azken honetan ere aipatu zituen “krisi soziala”, “emakumeek jasan indarkeriak”, “kulturarren garrantzia” –eta berdin dio haizeak harekin eramaten baditu hitzak, neurriak gelditzen dira eta hitz eder hauentzako neurririk ez du ematen–. Kalkulu eta helburu hauek kontutan harturik, nola da posible bezperan Parisko Errepublika Plazan instalaturiko ehunka etorkinei buruz hitz bakar bat ere plazaratu ez izana? Nola da posible miseria gorrian diren etorkin hauek poliziaren partetik pairatu indarkeria bortitzez hitz bakar bat ere erran ez izana? (Testuinguruan kokatzeko: aitzineko astean poliziak Parisko kanpamentu bat desegin zuten, 4.000 immigranteei zuten bakararra suntsituz eta aterabide eske okupatu zuten Errepublika plaza; poliziak bertatik bota zituen berehala). Eta orokorki, nola da posible manifestazioetan ia sistematikoa bilakatzen ari den polizia gehiegikeriaz hitz bakar bat ere ez hautatu izana? Are gehiago, “Segurtasun globala” deitu lege proposamena Frantziako Parlamentuan denean –polizia indarkeriak “fede txarrez” zabaltzea kazetariei debekatzeko dien legea–. Nola da posible? Jakinda hitz bakoitza arreta handiz hautatzen duela. Nekropolitika deitzen zaio zein bizi daitekeen eta zein hil daitekeen erabakitzen duen botereari; Michel Foucaulten “bioboterea” terminoa osatzen duen Achille Mbembe filosofo post-kolonialaren nozioa dugu hau. “Nekropolitika funtsezko gaia da. Jendarteak nor markatzen du garrantzirik gabeko entitate ala jendaila gisa? Nor dira bizitza errealeko hildako-bizidunak? Ez bada heriotza fisikoagatik, heriotza sozialagatik, heriotza ekonomikoagatik edo ezerezkeria politikoagatik” dio Nova Bordelon aktibista eta kazetariak. Horretan gaude: izan Mediterraneoak irensten dituen gorputzak salbatzeko Europar Batasunak neurririk ez duenean hartzen, ala Macronek izurrite bat gainditzeko –eta beraz biziak salbatzeko– bideratu diskurtso kalkulatu ez dituelarik aipatzen bezperan jipoituriko etorkinak. ●